

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

EHUNEKIN IKASTEN

Egilea: Jone Garmendia Castaños

Zuzendaria: Begoña Bilbao Bilbao

Leioan, 2017ko Maiatzaren 30ean

EGILEAREN ONIRITZIA

A U R K I B I D E A

Sarrera.....	4
1. Marko teorikoa eta kontzeptuala.....	5
1.1. Eskola Berria	5
1.2. Eredu transmititzaitetik eredu eraikitzaile.....	6
1.3. Francesco Tonucci: haurren eskubideen defendatzaile	7
2. Metodologia.....	9
3. Lanaren garapena.....	10
3. 1. San Millan eskola	11
3. 2. “100 lenguaia 11 esperientzia” proiektua.....	12
3.2.1. Ikuspuntu aldaketa.....	13
4. Emaitzak eta ondorioak	22
5. Erreferentzia bibliografikoak	24

E R A N S K I N A K

1. eranskina. Eskola transmititzailea eta eskola eraikitzailea.....	27
2. eranskina. Eskolako ordutegia	29
3. eranskina. Galdetegiak.....	30
4. eranskina. Eskolako argazkiak	33

EHUNEKIN IKASTEN

Zizurkilgo San Millan eskolako proiektuaren azterketa.

Jone Garmendia Castaños

UPV/EHU

Haurren garapen prozesu osoa errespetatzen ez duen eskola eredua aldatu nahian, Zizurkilgo San Millan eskolak martxan jarri duen proiektua aztertzen duen lana da hau, proiektuak abantailak edo desabantailak dituen ikusteko helburuarekin. Horretarako, lehenik, San Millan kokatzen den Eskola Berriaren markoa azaltzen da. Jarraian, proiektuaren oinarriak eta eskolan lan egiteko erak bildu dira. Ondoren, proiektuak eskolara ekarri duen ikuspuntu aldaketa jaso da, ikastetxeko protagonistak elkarrizketatu eta horien iritziak ere txertatuz. Uneoro Francesco Tonucci pedagogo italiarraren hitzak hartu dira kontutan, eskola ere horietan oinarritzen baita.

Proiektua, Eskola Berria, Tonucci, San Millan eskola, metodologia

Este trabajo recoge el proyecto que ha puesto en marcha el colegio San Millán de Zizurkil, el cual intenta cambiar un modelo de escuela tradicional en el que no se respeta el proceso integral de los niños y niñas. El objetivo de este trabajo es determinar las ventajas y desventajas de dicho proyecto. Para ello, en primer lugar, se ha analizado el marco de la Escuela Nueva en el que se sitúa la citada escuela. Seguidamente, se han recogido las bases del proyecto y el modo en el que se trabaja en el mismo. A continuación, se han resumido los cambios acaecidos en la escuela, insertando también las opiniones de los protagonistas recogidas por medio de entrevistas. En todo momento, se han tenido en cuenta las palabras del pedagogo italiano Francesco Tonucci, dado que la escuela también se fundamenta en ellas.

Proyecto, Escuela Nueva, Tonucci, escuela San Millan, metodología

From the desire to change a model of school that does not respect the integral development of children, this work studies the project that has started San Millan school from Zizurkil, aiming to know whether the project has advantages or disadvantages. In order to know that, first of all, it is explained the movement of the New School in which the school is integrated. After that, the bases of the project and the working methods of the school have been collected. Furthermore, we can see the change of mind that has brought the project to the school, adding as well the thoughts of the protagonists. In every moment, the idea of the italian educator Francesco Tonucci has been kept in mind, since he is the fundament of the school and its methodology.

Project, New School, Tonucci, San Millan school, methodology

Sarrera

Haurra ehunez egina dago.

*Haurrak ehun hizkuntza ditu.
Ehun esku, ehun pentsamendu.
Pentsatzeko eta hitz egiteko ehun modu.
Ehun, beti ehun.
Entzuteko, harritzeko, maitatzeko ehun modu.
Ehun alaitasun, kantatu eta ulertzeko,
ehun mundu deskubritzeko,
ehun mundu sortzeko,
ehun mundu amesteko.*

*Haurrak ehun hizkuntza ditu
(eta ehun, ehun eta ehun),
baina laurogeita hemeretzi lapurtzen zaizkio.*

Eskolak eta kulturak burua gorputzetik banatzen diote.

*Eskurik gabe pentsatzeko esaten diote,
bururik gabe jarduteko,
entzun gabe hitz egiteko,
alaitasunik gabe ulertzeko,
jaiegunetan soilik maitatzeko eta harritzeko.*

*Jadanik existitzen den mundu bat aurkitzeko esaten diote
eta ehunetik laurogeita hemeretzi lapurtzen dizkiote.*

*Jolasa eta lana,
errealitatea eta fantasia,
zientzia eta irudimena,
zerua eta lurra,
arrazoimena eta ametsa
batera ez doazen gauzak direla esaten diote.*

Azken batean, ehun ez dela existitzen esaten diote.

*Baina haurrak dio:
ehun, ordea, existitzen da.*

(Malaguzzi in Edwards, & Gandini, Forman, 1993:2). (Nik moldatua)

Malaguzziren poema honek ezin hobeto laburbiltzen du lan honen esentzia, eskolari kritika gogor bat egitearekin batera, haurren gaitasunak onartzen baititu. Lan honekin haurrak mundua ulertzeko, pentsatzeko, jolasteko, deskubritzeko, amesteko... duen modua ulertzen duen eskola bat aztertu nahi dugu; umea ardatz hartzen duen eskola eredu bat egingarria dela eta badagoela baieztatu nahian.

Bide horretan, Eskola Berria aztertuz ekin diot lanari, eskolaren markoa ulertu nahian. Egia da ez dagoela eskola ideal bat, baina proiektu berritzaileek hori lortzeko egiten

duten ahalegina izugarria da eta helburu horren alde borrokatzen dute uneoro. Horregatik, lana garatzeko San Millan eskolak martxan jarri duen proiektu pilotua aztertu dut. Uneoro, Tonucci pedagogo italiarra hartu dut oinarritzat, aztertu dudan eskolan honen ideiak baitituzte ardatz.

1. Marko teorikoa eta kontzeptuala

Lan honetan Zizurkilgo San Millan eskola txikian dagoen proiektua aztertu nahi dugu, horren oinarriak definituz, azkenean, ia abantailak edo desabantailak dauden argitzeko. Horretarako, hurrengo atalean, marko teorikoa eraikiko dugun honetan, San Millan eskolak jarraitzen duen Eskola Berriaren izaera eta printzipioak aztertuko ditugu. Ondoren, eskola eredu transmititzaile edo tradizionaletik eredu berrira edo eraikitzaileerako trantsizioa egiteko modu bat azalduko da, Francesco Tonucciren teorian oinarrituta. Azkenik, pedagogo italiarraren ideiak bilduz amaituko dugu atal hau.

1.1. Eskola Berria

Europar Eskola Berria XIX.mende amaieran kokatzen da, eskola tradizionalaren urrezko legeei (metodoa, ordena eta arauak) kontra eginez. Narvaezen (2006) esanetan, mugimendu zabala eta konplexua da, jatorri eta iritzi ezberdinetako autore askoren ekarpenak jasotzen baititu. Autore horien artean, Palaciosek (1984) honakoak aipatzen ditu: lehen hastapenetan Rousseau, Pestalozzi, Fröebel, Tolstoy eta Key; bigarren etapa gisan definitzen duenean, berriz, Dewey, Claparède, Montessori, Decroly, Kerschensteiner eta Ferrière sartzen ditu; eta azkenik, hirugarren etapan Cousinet eta Freinet, Neill, Reddie eta Hahn sartuko lirateke.

Filhoren (1964) esanetan, Eskola Berriaren mugimenduan lau printzipio orokor identifikatu daitezke: haurren nortasunarekiko errespetua eta askatasuna; hezkuntzak sozialki zein indibidualki duen funtzioaren ulermena; ikaskuntza sinbolikoaren garrantzia eta azkenik, haurren jatorri, familia, erlijio edo ezaugarriak edozein izanda ere, horien aberastasunaren onarpena.

Ildo beretik heltzen dio Palaciosek (1984) ere gaiari. Bere esanetan, Eskola Berriak erabateko konfiantza du haurrengan eta euren interesetatik abiatutako jardueretan oinarritzen da, haurra eskolako protagonista bihurtuz. Gainera, autore honen ustez, Eskola Berriaren markoan umearen inguruan zegoen ideia guztiz aldatu zen: haurtzarora etapa inperfektu, pesimista eta osatugabea ikustetik, aro baliotsu eta sortzaile gisara

ulertzeraz pasa baitzen. Beraz, hezkuntzak etorkizunerako hezteari utzi eta unekoa hezteari ekin zion: “la escuela no debe ser una preparación para la vida, sino la vida misma de los niños.” (Palacios, 1984: 18).

1.2. Eredu transmititzaitetik eredu eraikitzaile.

Eskola Berriak eskola tradizionala du abiapuntutzat. Aldaketak ezinbestekoak dira eskola eredu batetik bestera igarotzeko eta Tonuccik ezin hobeto azaltzen du batetik besterako jauzia egiteko bidea.

Esan gabe doa Tonuccik gogor kritikatu izan dituela eskola tradizionalaren oinarriak, nahiz eta berak tradizional ordez transmititzaile deitzen dion. Horren aurrean, bada, eskola eredu berri bat proposatzen du: eskola eraikitzailea, non haurrak berak bere jakintza eraikitzen duen.

Pedagogo italiarraren (1990) ustez, eskola transmititzailea, honako hiru ideietan oinarritzen da: umeak ez daki ezer eta eskolara ikastera doa; irakasleak badaki eta eskolara ustez ezer ez dakien horri irakastera doa eta azkenik, adimena ezagutzen bilketarekin betetzen joaten den hutsune bat da. Eredu eraikitzailean, aldiz, haurrak badaki eta eskolara taldean bere jakintzen inguruan hausnartzera, horiek antolatuz, sakontuz, aberastera eta garatzera doa. Era berean, irakasleak ikasle bakoitza ahalik eta maila altuenera iritsiko dela bermatzen du, talde osoaren parte hartze eta ekarpenekin. Azkenik, adimena betetik dagoen edukiontzia gisa ulertzen da, aldatu eta aberastu egiten dena (ikus 1.eranskina).

Eredu batetik besterako bidea egiteko hiru oinarri aipatzen ditu autoreak (Tonucci, 1990). Oinarri horietatik lehena, eskolak guztiei bermatu behar dizkien lehen mailako esperientzia kulturalak aintzat hartzea da.

Bigarren oinarria haurrenganako arreta da. Autorearen ustez, ezinbestekoa da haurrari arretarako eta harrerarako momentu bat eskaintzea, umeari hitz egiteko aukera emanez. Haurrari hitz egin eta adierazi arazteko, ordea, testuinguru egokia sortu behar da, zeinetan haurrak entzuteko hezi behar diren, errespetuzko eta intereseko giroa sortuz, beraien hitzak aintzat hartuko direla jakin behar dutelarik.

Azkenik, hirugarren oinarria alderatzea da, kontrajartzea, eztabaida izango delarik iritziak sortzeko lehen instrumentua. “El trabajo escolar estriba en la superación de

contradicciones, en la solución de los problemas. Su objetivo será el logro de un nuevo acuerdo, de un nuevo equilibrio.” (Tonucci, 1990: 34). Jakintzen oreka berri hori bilatzeko, bada, ikerketa lana egin beharko dute hurrek, material, iritzi, dokumentu edo liburuak kontsultatuz, leku ezberdinak bisitatuz, eztabaidatuz...

Se trata en definitiva de recrear en el marco de la escuela, tradicionalmente considerada como estructura de enseñanza, situaciones de auto-aprendizaje; en el marco de la estructura artificial y obligatoria, situaciones naturales de educación por inmersión aprender haciendo, mirando, viviendo en contacto con personas competentes, instrumentos, tradiciones. (Tonucci, 1990: 35).

Guzti hori lortzeko, ordea, autoreak aipatzen dituen oinarri batzuk ezinbestekoak dira, sozialki irakaskuntzari duen garrantzia ematea edo etorkizuneko irakasleei formazio egoki bat eskaintzea esaterako.

Horrela Tonucciren iritzi eskolaren oinarrizko helburua dena erdietsiko da: instrumentuen, prozesuen eta gaitasunen lorpena eta ez jakintzen pilaketa soila.

1.3. Francesco Tonucci: haurren eskubideen defendatzaile

Eredu batetik besterako jauzia azaltzeaz gain, Tonucci Eskola Berriaren ideien teorizatzailea ere bada. Tonucciren ideiek hasiera batean Célestin Freinet eta Lorenzo Milaniren, eta beranduago, Mario Lodi eta Loris Malaguzziren ideietan dute oinarria, mugimendu konstruktibistaz ahaztu gabe.

Berak bultzatzen duen metodologia Eskola Berriaren marko horretan sartuko litzateke, gogor kritikatzeko baititu eskola tradizionalaren ereduak. Bere iritzi (Tonucci, 1974) eskolak haurrak otzandu eta hautatu egiten ditu. Eskolako ikaskuntza, bizitzarako prestakuntza da, baina gure gizartea ez aldatzera bideratutako ikasleak baino ez ditu biltzen ikaskuntza horrek:

La enseñanza se opone a la investigación. El maestro es el portador de la cultura oficial, de la cultura de unos pocos que se convierte para todos en un tamiz de mallas muy finas. Todos los niños procedentes de la clase social en la que nace esta cultura, se sentirán a sus anchas. Para todos los demás será una lucha continua con algo completamente ajeno a ellos, a su mundo, una lucha que puede resolverse (...) para la casi totalidad, con el abandono de la escuela o el alejamiento de la misma. De esta forma, el muchacho que anhelaba aquella sociedad maravillosa puede entrar en ella, pero como criado, como obrero, como explotado. (Tonucci, 1974: 39).

Hitz hauei jarraituz, argi esan daiteke bere ustez eskolak ezberdintasun sozialak berrezartzen dituela eta sarritan azpimarratzen du eskolak guztientzat izan behar duenaren ideia. Era berean dio, gizarteak proposatzen duen eskola eredua gutxi batzuentzat baino ez dela, ume askok jarraitu ezin ditzaketen proposamenekin: “Es verdad que hoy la escuela no rechaza a ningún niño, pero tampoco le ofrece lo que necesita. La escuela debería ser un lugar donde las diferencias sociales se modifican y se recuperan, pero en cambio sigue siendo un lugar que aumenta estas diferencias.” (Tonucci, 2003).

Gainera, eskolako langileek, sistema horren zatia diren heinean, ez dutela estruktura behar bezala aldatzen uste du, aldaketa oro sistemari men eginez egingo baita (Tonucci, 1974). Horren aurrean, haurren gaitasun sortzaileak errespetatzen dituen eredu bat proposatzen du, umearen askatasuna aldarrikatuz. “El discurso de Tonucci representa un modelo integral de reflexión sobre el desarrollo de niños y niñas como seres humanos completos y capaces, como ciudadanos, y no como personas a medio 'hacer'.” (Perera, 2015: 43).

Pereraren (2015) hitzetan, Tonuccik hezkuntza eta bizitza elkarrizketan oinarrituta eta era kritiko eta sortzailean ulertzen ditu. Tonuccik berak (2013) dioenez, urtero ikasturtea ez gainditzearen beldur izaten zen. Beste hainbat aspektutan oso ona izan bazitekeen ere, ez zuen lortzen, antza, eskolan ebaluatuko zuten horretan neurria ematea. Gerora jakin du, ordea, eskolako arrakastak ezer gutxi dakiela bizitzako arrakastaren inguruan: “Ahora sé que no hay ninguna relación entre el éxito escolar y el éxito en la vida. Esto es así porque, lamentablemente, la escuela tiene una relación muy escasa con la vida misma.” (Tonucci, 2013).

Azken batean, guztiengan aukerak ikusten dituen eredu baten alde egiten du. Pererak (2015) dio Tonucciren ustez eskolak sarritan haurren aukerak mugatzen dituela, "se limita a adiestrarlos en un lenguaje único y uniforme. Ante esto el pequeño se va acomodando y olvidando, progresivamente, las formas de expresión más personales." (Perera, 2015:30). Beraz, horren jakitun, Tonuccik bere ereduari ezinbestean haurren perspektibatik heldu dio, haurra protagonistatzat hartuz eta bere neurrira egokitutako hezkuntza baten alde eginez. Ikuspuntu horretatik aztertu ditu aspektu guztiak (denboraren zein eskolaren espazio antolaketa, irakasleen formazioa, lanerako metodologia, hezkuntza politika, osasunerako hezkuntza, esperimentazio zientifikoa,

mundu artistikoa, erlazio afektiboak...). Gainera, Tonucciren (2003) arabera, eskolak egiten duen guztiak umeari eragiten dio, baina inoiz ez dago haurrari berari galdetzeko ohitura. Horren aurrean, antolaketa demokratiko baten aldeko hautua egiten du, zeinetan erabakiak elkarrekin hartzeko bilerak egiten diren eskolako partaide ezberdinekin.

Guzti honetan, noski, irakaslearen rolak ezinbesteko garrantzia hartzen du; eta hori da, hain justu, italiarraren kezka nagusietako bat. Eskolan gidaria eta giltza irakaslea dela kontutan izanda, bere ustez energia eta baliabide gutxi eskaintzen zaizkio horien formazioari. Ezaugarri zehatz batzuk dituen profesional bat bilatzen du Tonuccik:

Para esta escuela no sirve un maestro. En otras palabras, no sirve una persona que sepa mil veces más que los muchachos. Se precisa una persona que viva los problemas de su época, que sepa reflexionar y tomar posiciones, una persona en cuyos actos se vea lo que sabe y en lo que cree, es decir, una persona culta, y culto puede serlo cualquiera independientemente de los títulos universitarios. (Tonucci, 1974: 50).

Irakasle ausartak behar dute izan, erabaki erradikal bat hartzeko adorea izandakoak, beraietzat edota beraien gizartearentzat lan egin ordez, haurrentzat eta haurren gizartearentzat lan egingo dutenak: “son personas que luchan contra una profesión alienadora que pretende convertirlos en mediadores de un saber que no es el suyo propio.” (Tonucci, 1974: 73).

Azken finean, eskolek jendea maitatu behar dutela dio Tonuccik (1974), eta horretarako lehen pausua, haurrak askatasunean eta euren historiaren protagonista gisa ulertzea da.

2. Metodologia

Ehunekin ikasten lanaren ideia Italian egindako egonaldi batetik sortu zen. Sarritan pentsatu izan dut Italiak hezkuntzaren arloari ekarpen asko egin dizkiola, eta ekarpen horietako batzuk bertan ezagutu ondoren, horrekin lotura zuen lan bat egiteko grina sortu zitzaidan. Zenbait pedagogo ezberdin buruan ibili ondoren, Francesco Tonuccirengan zentratzea erabaki nuen. Bere ideiekin erabat ados egoteaz gain, ideia horietan oinarritutako eskola baten berri izan nuelako hautatu nuen. Hala, teorizazioa praktikan ikusi ahal izango nuen eta horrek asko erakarri ninduen.

GrAL hau egin ahal izateko, hainbat pausu eman behar izan ditut. Lanaren orain artekoa, ikerketa lan teoriko bat izan da gehienbat, azterketa bibliografikoan oinarrituta.

Horretarako, Francesco Tonucciren gaineko literatura irakurri behar izan dut, haren oinarritzko ideiak jasoz, ondoren Eskola Berriarekin lotzeko.

Hemendik aurrerakoa, berriz, azterketa bibliografiko etengabeaz gain, praktikan, elkarrizketetan eta egunerokoa oinarrituta egin dut. Beraz, hurrengo pausua San Millan ikastetxeko proiektu pedagogikoa aztertzea izan da, Tonucciren ideietan oinarritzen baita. Hala, teoriarik landutako ideiak praktikan ikusi eta forma ematea lortzeko. Era berean, eskolako partaideen iritziak bildu asmoz elkarrizketa batzuk ere egin ditut. Elkarrizketak ohiko tresna izaten dira honelako lan kualitatiboetan inplikatuaren iritzia jasotzeko, informazio eta datuak lehen eskutik biltzea ahalbidetzen baitute. Aipatzekoa da, gainera, gure kasuan elkarrizketa erdi-egituratuak egin ditugula, izan ere, askotan elkarrizketatuak emandako erantzunen araberakoa izaten baitzen hurrengo galdera ere, solasaldia aberatsagoa izan zedin.

Beraz, azterketa bibliografikoaz harago, praktikako esperientzian (hau da, eskola ezagutzeko, tailerretan murgiltzean, egunerokoa behatzean, esku-hartzeetan partaide izatean, proposamenak egitean, laguntzean, bilera eta formakuntzetan egotean...) eta inplikatuari egindako elkarrizketetan oinarritutako metodologia izan da.

3. Lanaren garapena

Tonucciren oinarriak teorikoki aipatu ostean, bere ideiak praktikan jartzen dituen eskola ezagutzeko moduan gaude, San Millan eskola, hain zuzen ere. Eskola hau, Abaltzisketako Txalburu eskolarekin batera, Tonucciren ideiak jarraitzen dituen eskola da. Bi eskoletan proiektua urte berean jarri zen martxan, oinarri berberarekin. Dena den, nik San Millanen zentratzea erabaki dut, proiektuak sendotasun handiagoa hartu baitu bertan.

San Millan Zizurkilen kokatuta dago. Zizurkil Gipuzkoako Tolosaldea ingurunean dagoen herria da eta bi auzotan banatzen da: Elbarrena eta Zizurkil goia. Lehenak biztanleriaren %80 biltzen du, eta jatorriz landa auzoa den arren, herrigune bilakatzen hasi eta gaur egun gune industrializatu gisa definitzen da. Bigarrenak, ordea, landa ingurunea izaten jarraitzen du, 150 biztanle inguru ditu eta bertan kokatzen da, hain zuzen, dagokigun eskola.

3. 1.San Millan eskola

Eskolan 31 ume daude eta Gipuzkoako Eskola Txikien barnean sartua dago. Eskola txiki guztiak bezalaxe, hau ere publiko eta euskalduna da eta 2 urtetik hasi eta 12 urtera arteko ikasleak hartzen ditu. Ikastetxea herriko eskola gisa definitzen da, irakasle eta gurasoek harreman oso estua izateaz gainera, herrira ere zabaldua baitago. Hala, eskola komunitate txiki bat dela esan daiteke.

Eskolaren oinarri nagusiak aipatze aldera, hezkuntza proiektuak dioena bilduz, lehenik, ikuspegi konstruktibista hartzen duela oinarriztat esan beharra dago. Beraz, ikaslea bera da bere ikaskuntza-prozesua eraikitzen duena, aurreko jakintzetan oinarrituta. Eraikitze prozesua gertatu dadin, ezinbestekoa da haurra hori ahalbidetuko duen egoera esanguratsu ezberdinetan kokatzea. Hori jakinda, irakaslearen eginkizun nagusia ikasleak ikasi beharrekota barneratzeko egoera didaktikoak diseinatzea izango da, ikasleen interesa piztuko duten egoerak pentsatuz. Horrela lortuko baita ikaslearen ikaste prozesua benetan esanguratsua izatea.

Era berean, eraikitze prozesu hori gauzatu dadin, ikasleari autonomia, ardura eta konfiantza eskaini eta sentiarazteko ahalegin etengabea egiten du eskolak. Autonomia, ikasleak bere kabuz eta bere moduekin egiten onartuz eta utziz; ardura, eskatutako lanaren erantzukizuna ulertaraziz; eta konfiantza, egingo duen hori baliagarria eta egokia izango dela sentiaraziz.

Hala, eskolak ikasle guztiei oinarrizko instrumentuak iritsarazteko ahalegina egiten du. Tonucciren (2013) ideiekin bat etorriz, eskolak erabat aldatu du bere funtzioaren ikuspegia eta egun edukiak baino, lan egiteko metodoak eskaintzen ditu, nola ikasi alegia. Zer ikasi ez da hain garrantzitsua umeak ikasteko tresna eta gogoia dituen bitartean.

...la escuela... debe reencontrar su función específica, que consiste en permitir que un grupo de alumnos, en dinámica de confrontación y cooperación recíproca, junto con adultos competentes, en un lugar adecuado, desarrollen a los máximos niveles posibles las capacidades cognitivas de cada uno, elaborando sus propias experiencias y utilizando todos los lenguajes y todas las dimensiones de su propia personalidad. (Tonucci, 1990: 12).

Funtzio hori lortu, eta ikasle taldeak dinamika horretan murgiltzeko, Tonuccik (2013) eskola aldatzea proposatzen du, irakasgaiak ahaztu eta jolasten ikastea: “Mi propuesta es renunciar a las aulas. Me imagino una escuela hecha de laboratorios y talleres

fuertemente significativos en la que son los alumnos los que se mueven, no los adultos”, eta horri heldu diote, hain zuzen, eskola honetan.

Edozein kasutan, aipaturiko guztia lortzeko, haurren zorientasuna dute helburu nagusitzat, umea ondo egonda, gainerako guztia ere ondo joango dela sinesten baitute. Freirek ere halaxe dio, “umea ondo badago, ikastea ere berez sortuko da. Ondo dagoen umeak berez ikasten du, uneoro ari da ikasten” (Freire, 2017: 24). Hori kontuan izanik, beraz, ikasle bakoitzaren ongizateari erreparatzen diote eskolan, bakoitzari berarentzako onena eta egokiena eskainiz eta eskatuz momentu bakoitzean.

3. 2. “100 lenguaia 11 esperientzia” proiektua

Aipatutako ardatz nagusi horiek jarraituz San Millan eskolak *100 lengoia 11 esperientzia* deituriko proiektu pilotua jarri zuen abian 2014-2015 ikasturtean. Berau, Tonucciren ideiak errealitate bihurtzen dituen proiektua dela esan daiteke. Pedagogo italiarraren hitzak kontutan hartu eta teoria hori praktikara eramateko bidea egin baitu eskolak.

Bide horretan, bada, eskolaren antolaketa erabat aldatu da, eta egun, bi ildo nagusi dituela esan daiteke. Ildoetako bat, ikastorduak arloetan antolatzetik tailerretan antolatzera pasatzea da. Beste ildoak, berriz, taldekatzeetan adin aniztasun mugatua izatetik, adin aniztasun osoa izatera igarotzea. Eskola txiki guztiek, berezko ezaugarria dute adin ezberdinetako haurren taldekatzeak egitea, baina eskola honetan, aniztasun hori erabat zabaldu da; hau da, 2-12 urte bitarteko haurrak batzen dituen taldekatzeak egitera igaro dira.

Hala bada, ohiko irakasgaiak ahaztu eta honako bost tailer hauek daude eskolan:

1. Liburutegia: Tailer hau batez ere literaturarekin, hizkuntza idatziarekin (irakurketa-idazketa) zein ahozkoarekin zerikusia duten edozein ekintzetarako erabiltzen da.
2. Mugimendua: Adierazpen artistiko mota ugari biltzen dituen gunea da. Bertan antzezlanak, pelikulak, dantza, psikomotrizitatea etab. egiten dituztelarik.
3. Arteak: sormenerako eta interpretaziorako gunea da. Pintura, marrazkia, eskultura, joskintza, zeramika... biltzen dituena.
4. Aroztegia: Matematika nozioak era praktikokoan aplikatzeko gunea da. Batez ere, eskulana, muntaia-desmuntaia, konponketak, eraikuntzak etab. lantzen dira.

5. Zientzia: Esperimentatzeko, norberaren hipotesiak eta usteak adierazteko, behatzeko, frogatzeko, ondorioak ateratzeko eta hipotesi berriak eraikitzekeo tailerra da. Sukaldaritza eta baratza ere bere barne hartzen ditu.

Tailer nagusiak horiek badira ere, horiez gain, zenbakikuntzako (matematika) saioak, mugi-zientzia (irteerak herrira), ingeles, irakurketa eta bertsolaritzako orduak ere badituzte (ikus 2.eranskina).

Egunero tailer ezberdinetan ibiltzeko aukera dute ikasleek, bi edo hiru aldi berean irekiko direlarik. Tailerretatik borondatez pasatzen dira eta eurek aukeratzen dute bakoitzean egin nahi dutena, lan egiteko era ireki, malgu eta beraien beharrera moldagarria ziurtatuz.

Hala ere, lana egoki egin ahal izateko tailer bakoitzak gehieneko ikasle kopurua du eta beteta baldin badago ezingo da beste inor sartu norbait ateratzen den arte. Tailer guztietan adin guztietako ikasleak egoteko aukera dagoenez, materialek ere adin guztien interes eta beharretara egokituak dira.

Dena den, lehenago aipaturiko bi ildo horiek salbuespenak dituzte. Tailerrak borondatezkoak izan arren, zenbait ekintza (irakurketa-idazketa, zenbakikuntza eta ingelesa) ikas-prozesuari begiratuta ezinbestekoak direla iritzita, derrigorrez egin behar dituzte. Eta horietan ez da adin aniztasun osoa ematen, aitzitik, haurrak talde ezberdinetan (A, B, C edo D) mailakatuta daude, euren jakintzen edo mailaren arabera.

Horrez gain, eta nahiz eta edozein momentutan, beharrak hala eskatuta, ikasleekin hitz egiteko, entzuteko... denbora hartzen den, astean bitan gutxienez talde osoarekin asanblada egiten da. Bertan eskolako zein etxeko bizipenak, gatazkak, emozioak erronkak... aipatu eta denen iritziak entzuten dira.

3.2.1. Ikuspuntu aldaketa

Eskola eredu arrunta izatetik gaur egun denerako trantsizioa egin ostean, egoera berri batean aurkitzen dira San Millan eskolan. Antolaketa berri honek ezinbestean ikuspuntu aldaketa nabarmena ekarri du eskolara. Hala, aspektu asko beste era batean ulertzen dira orain Zizurkilen. Jarraian, aldaketa handiena eman duten alderdiak aipatuko ditugu, teoriarik oinarritzeaz gain, irakasleen eta ikasleen hitzak ere lanera ekarriz (ikus 3.eranskina).

Irakaslearen rola

La infancia tiene su manera de ver, pensar y sentir y sería muy estúpido que intentáramos sustituirla por la nuestra. (Rousseau in Gonzalez, 2015: 75).

Eskola honetan irakasleak irakasteaz ahaztu eta ikasleei ahalik eta naturalenak, esanguratsuenak, hurbilenak eta errealenak diren inguru, egoera eta giro aberatsak eskaintzen dizkie. Azken batean, ikasle guztiei aukera anitzak ematea bilatzen du irakasleak. Izan ere, Freirek (2017) dioen bezala, ikasleari lekua eman behar zaio iniziatiba hartu eta autonomia garatuaz, bere bidea egin dezan.

Era berean, ikasleei denbora ematea ere ezinbestekotzat hartzen du irakasle taldeak, aurre hartu gabe; haurrak dauden prozesu, egoera edo unea errespetatuz eta hortik abiatuz. Horretarako, umeei begira eta entzuten egon behar dute.

Un buen maestro es el que escucha a los niños, porque sabe que no están vacíos, sino que son ricos de una experiencia que él no conoce. Y, si no la conoce, ¿cómo va a proponer un contenido que les resulte interesante? Cada acción educativa tiene que empezar con una escucha. (Tonucci, 2013).

Pazientzia izango da, beraz, irakaslearen ezinbesteko gaitasunetako bat, lasaitasunez, patxadaz, inpultsoei eutsiz eta etsi gabe jokatu beharko baitu; haurrek aurrera egingo duten itxaropenez, errespetuz, maitasunez eta estimuz. “Existe un verbo en castellano, que define muy bien este asunto: ‘aguardar’. Aguardar significa esperar con esperanza a alguien; dar tiempo o espera a alguien mientras se mira lo que hace con respeto, aprecio o estima.” (Hoyuelos, 2007: 10).

Jakintzak esanguratsuak izan daitezten, irakasleek ikasteko gogoia pizteko ahalegina egiten dute uneoro. Horrela, haurrei planteatzen eta eskatzen zaizkien egitekoak zentzuz eta gozamenez jantziko baitira.

Azken batean, irakasle izatea autoritate zurrunaren sinonimoa izatetik urrun geratu da San Millan eskolan. Irakasleak erreferenteak bihurtu dira, bidelagunak.

Uste dut irakasleok gehiegitxo funtzionalizatu garela eta iruditzen zait tekniko baino gehiago egile, sortzaile izan behar dugula. Garen horren eta egiten dugun horren sortzaile. Hezkuntzaren artisau ikuspegia aldarrikatuko nuke nik, eta ez horrenbeste fabrikako produkzioaren ikuspegia. Izan ere, hezteak ez da prozesu produktibo bat, ezta zientzia bat ere, hezteak arte bat da. (Freire, 2017: 23).

Freirek dioen gisan, heztea arte bat den neurrian, artelan baten zehaztasun, zaintza eta denborarekin ulertzen dute heziketa irakasle hauek ere.

Orain arte esandakoa teorikoa bada, praktikara eraman eta eskolako partaideen hitzak ekarriz, gai honen inguruan esaten dutena jaso dugu ondorengo taulan:

Irakaslearen Rola	
1. Haurra	“Los profesores me gustan Mucho. Porque no riñen, ni te echan la bronca. Ayudan, hacen bromas, se ríen, hablan de cosas interesantes...”.
2. Haurra	“Irakasleak lehendik hona aldatu egin dira, lehenago gehiago agintzen zuten. Orain, lagundu egiten digute, ideiak eman, aroztegiko arazoak konpontzen lagundu... Eta bueno Patxik beti bromak egiten ditu.”
1. Irakaslea	“Irakaslearen rola aditzez betetako rola da. Irakasleak haurrak heldu, eskuzabalik hartu, begiratu, bakoitzak egin behar duen bide bakar horretan lagundu behar du. Bakoitza den bezala errespetatu behar du, konparaziorik gabe, juzgurik gabe, aurreiritzirik gabe... Irakasleak haurrak maitatu behar ditu, baldintzarik eta presarik gabe, beraiekiko konfiantza izan behar du, ilusioz beraengan sinetsiz. Irakasleak haurrari bizitzen utzi behar dio.”
2. Irakaslea	“Argi izan behar dugu gu ez garela ezer haurrik gabe, haurrak direla gure motorra, gure arrazoia eta gure interesa. Uneoro egokiena dena eskaini behar diegu gure haurrei. Horretarako, etengabeko formazioa ezinbestekoa dela uste dut. Eskolan garrantzia handia ematen diogu horri. Zer egiten dugu ondo, zer gaizki? Zer hobetu dezakegu? Hori da aurrera egiteko gure eguneroko lana.” “Haurra zentzumen guztiekin entzun behar da, horrela, bere nahi, pasio eta jakintzetatik abiatuta lagundu ahal izateko.”

1.Taula: elkarrizketatuek irakaslearen rolaz esandakoa.

Adinak bai, mailak ez

Si para compartir cualquier faceta o actividad de nuestra vida tuviéramos que ser todos de la misma edad, no habría familias, ni cuadrillas, ni equipos, ni coros, ni grupos de baile, ni..., ni... Quizá existirían tan sólo los ejércitos y... las escuelas.
(Laiz, 2016).

2-12 urte bitarteko haurrak batera jartzean, aniztasun osoa bermatzen du eskolak. Aniztasuna, beraz, zentroko irakasleek dioten gisan, errealitate bat da, balore bat, aukera bat eta erronka bat. Guztien artean sortzen da egunerokoa Zizurkilen, guztiak berdinak direla ulertuta, baina bakoitzaren garrantzia eta berezkotasuna ahaztu gabe.

Hori horrela izanik, zaharrenak ez dira jakitunak izango, aitzitik guztien artean eraikiko dute jakintza eta bizitza. Era berean, txikienek ez dute zaharreganako presiorik edo beldurrik sentituko, edonorekin edonoiz erlazionatzen ohituta baitaude. “Esta dimension comunitaria del centro, de las personas y de las entidades sociales y culturales permite un clima social que cohesiona, hace horizontal, implica, incluye, democratiza y educa.” (Manzano, R. & Muñoz, I. & Surroca, J., 2014: 33).

Guztiak batera, elkarrekin eta mailetan arretarik jarri gabe ikasteak onurak dakartzala defendatzen du eskolak. “La riqueza del bagaje que cada niño, joven o adulto adquiere, es una fuente de conocimiento para el otro cuando el planteamiento del aula lo permite.” (Manzano, R. & Muñoz, I. & Surroca, J. 2014: 36).

Honakoa da gai honen inguruan eskolako protagonistek duten iritzia:

Adinak bai, mailarik ez.	
1. Haurra	“Me gusta mucho, en Eibar no conocía ni a los niños que tenían un año menos... Aquí soy amigo de todos!”
2. Haurra	“Orain zientzia dena lehen ume txikien gela zen eta gela horretara eskolako azken egunean edo eskola txikitako kamisetak probatzera bakarrik joaten ginen, bestela ez ginen inoiz egoten. Orain denak elkarrekin, gusturago.”
1. Irakaslea	“Umeen harremana, asko aldatu da (...). Eskolan guztiak batera daudenetik herrian ere hala ibiltzen omen dira. Gatazkak asko murriztu dira, dudarik gabe. Mailarik ez egote horrek asko laguntzen du horretan. Hemen ez dago mailarik, ez dago ikasturte bukaerarako ezinbestean jakin beharreko edukirik; haur bakoitzak ez daki zer jakin behar duen bere adinerako eta horrek gatazkak izugarri murriztu ditu. Dagoeneko haurrak zein mailatan dauden ez jakitera ere heldu dira! Hori ez nuen sekula pentsatuko, batzuei kaos bat irudituko zaie, baina niri izugarria iruditzen zait. ”
2. Irakaslea	“Mailarik gabeko eskola. Hori nire betiko ametsa izan da: haurra zein mailatan dagoen ez jakitea. Adina bai, noski, eta bere garapen maila ere bai, baina maila.... Nork, zertan oinarrituta eta zergatik erabaki du umeak adinka antolatzea? Arrazoi pedagogikorik badago? Beste inon ez da halako mailaketarik egiten. Gure eskolan haurrak zein mailatan dauden inporta ez duen leku bat sortu dugu. Curriculumek maila bakoitzeko ezartzen dituzten minimo eta maximoez, programa zehaztuez, denbora berdinez ahaztu eta hurrek ikasi dezatela; ikasi eta ikasi.”

2.Taula: elkarriketatuek adinak bai, baina mailarik ez egotearen inguruan esandakoa.

Denbora eta edukiak

Preciso tiempo para mirar un árbol, un farol,[...] para pensar qué bien hoy es invierno, para morir un poco y nacer enseguida y para darme cuenta. Preciso tiempo, el necesario para chapotear unas horas en la vida y para investigar por qué estoy triste. [...]

Vale decir preciso, o sea necesito, digamos me hace falta tiempo sin tiempo.
(Benedetti in Domènech, 2014: 128).

Beti denbora faltan ibiltzen garen gizarte honetan, San Millan eskola denboraz hornitzeko ahaleginetan bizi da. Saiakera handiak egiten dituzte ikasleei denbora emateko. Esatekoa da, eskolak indarra aprendizaien kalitatean jartzen duela, eta ez denboran edo eduki jakin batzuetan. Beraz, ikasketa kalitatezkoa izateko eta ez azalekoa, ezinbestean, ikasleei, ikasketa hori finkatzeko denbora eskaini behar zaie.

La educación lenta plantea la necesidad de devolver tiempo a los niños para que una parte de éste pueda ser gestionado por ellos mismos. Les da tiempo libre y autónomo y hace posible su desarrollo armónico, tiempo para satisfacer todas sus necesidades, incluidas la de estar sin hacer ningún tipo de actividad (...). Devolviendo tiempo, devolvemos la misma infancia a los niños. (Domènech, 2014: 129).

Era berean, Domènechek (2014: 112) dio, hezkuntzan edukiak aurreratzea edo garaia baino lehenago irakastea ez dela beti hobeto. Idazle honen esanetan, ikasketak barneratzeko orduan bi oinarri izan behar ditugu kontutan: lehena, ikasketek denbora bat eskatzen dutela; eta bigarrena, ikasketa bakoitza dagokion unean egin behar dela, ez lehenago. Aitzitik, ikasketak aurreratzeak kalteak ere ekar ditzakeela baieztatzen du: “la anticipación no conlleva de forma necesaria una más rápida y mejor adquisición de los mismos (aprendizajes). [...] Pueden dar buenos resultados inmediatos, pero provocar problemas a medio y largo plazo.” (Domènech, 2014: 113).

Grayk (2015), alor honen inguruan egindako hainbat ikerketen emaitzak bildu ditu; haurrak gaitasun akademikotan oinarrituta hezteak edota, kontrara, gaitasun intelektualetan oinarrituta hezteak dituen eragin ezberdinak aztertuz. Ikerketen ondorioa garbia da: gaitasun akademikotan oinarritutako hezkuntza jaso duten haurrek, momentuan emaitza hobek lortzen badituzte ere, luzarora, arazoak izaten dituzte; kontrara, gaitasun intelektualetan oinarritutakoek hasieran arazoren bat izan badezakete ere, luzarora emaitza ezin hobek lortzen dituzte.

Those in classrooms where they learned to plan their own activities, to play with others, and to negotiate differences may have developed lifelong patterns of personal responsibility and pro-social behavior

that served them well throughout their childhood and early adulthood. Those in classrooms that emphasized academic performance may have developed lifelong patterns aimed at achievement, and getting ahead, which—especially in the context of poverty—could lead to friction with others and even to crime. (Gray, 2015).

Hori ikusita, beraz, eta hezkuntzak neurtu gabeko denbora behar duela sinetsita, eskolak argi du bere hautua: “planificar siempre segun las cosas importantes, por encima de las urgentes” (Domènech, 2014: 119).

Beste behin ere, irakasle eta ikasleek gai honetaz esan digutena bildu dugu jarraian:

Denbora eta edukiak.	
1. Haurra	“Puedo estar todo el tiempo que quiera allí (en los talleres), haciendo lo que a mí me gusta, no tengo prisa para acabar nada.”
2. Haurra	“Sarrera da gehien gustatzen zaidan momentua, egunero gauza desberdin bat gertatzen delako. Ez dakizu zer gertatuko den gero. Lehen bai, lehen beti berdina zen. Orain zuk aukeratzen duzu zer egin. “ Dena den, orain ere ordutegia baduzue, lehen bezala. “Bai, baina hala ere beti da desberdina.”
1. Irakaslea	“Haurra bere beharren arabera mugitzen da eskolatik. Badago haur bat lehen hiruhilekoan aroztegitik oso oso gutxi pasatu zena, eta hiruhileko honetan maizago etortzen da. Ez etorrira ere badakigu gaitasunak lantzen ariko dela, hemen ez bada beste tailer batean, baldintzak eta egoerak horretarako pentsatuta baitaude. Bere denbora behar du eta ezin diogu behartu.”
2. Irakaslea	“Bai, proiektu honekin izugarri ikasi dugu haurrari denbora emate horren inguruan. Denbora eman... haurraren konfiantza izatearekin lotuta dagoela esango nuke. Konfiantza baldin baduzu, lortuko duela uste baduzu iritsiko zaio horretarako garaia. Zenbatetan sartu ote zaigu buruan haurrak zerbait oraintxe bertan ikasi behar duela. Zergatik? Zergatik orain? Nori datorkio ondo, berari ala guri? Hartu al dugu kontutan berak nahi duen, behar duen, komeni zaion...? Presioa sartuz okertu baino ez dugula egiten sinetsita nago. Haurrek denbora behar dute, denbora eman behar zaie eta denbora emanda gauza harrigarriak egiteko gai dira.”

3.Taula: elkarrizketatuek denbora eta edukiez esandakoa.

Ebaluazioa

“Cuando creíamos que teníamos todas las respuestas de pronto cambiaron todas las preguntas.”
(Benedetti in Gonzalez, 2013: 32).

Jakina denez, ebaluazioa nagusiki ikasleen ikaste prozesuaren erregulatzailer gisa erabili ohi da, ikaslea ikaste prozesuaren zein fasetan dagoen jakiteko lagungarri. San Millan eskolak, ordea, hortik harago begiratu eta aspektu horiez gain, beste alderdi ugari irreparatzen die ebaluatzeko orduan: ikasleen arteko harremanak sendoak eta

errespetuzkoak izatea; irakasleen etengabeko formazioa sustatzea (irakasleen rola inguruan hausnartuz); eskolako ibilbidean gurasoak bidelagun izatea; eskolaren lehentasunak zeintzuk izango diren hausnartzea kalitatezko eskola bat bilakatzuz.

Podríamos reflexionar sobre dónde aparecen evaluadas la empatía, la asertividad o algo tan deseable como la felicidad. O cómo se mide y dónde aparecen la honradez, la honestidad, continuando con la creatividad, la capacidad para innovar, la generación de arte en cualquiera de sus facetas, algunos curtidors temas transversales logsianos... evidentemente podríamos deducir lo difícil que resultaría evaluar todas estas cuestiones. Pero también podríamos pensar que, si no se evalúan, quizás se devalúen. (Bustos, 2014).

Guzti hori aurrera eramateko ebaluazioa eguneroko baten bitartez egiten da. Hala, tailer bakoitzean ume bakoitza zertan ari den jasotzen da, aipagarria deritzon edozer bilduz. Horrek ebaluazio zuzen-zuzena, jarraitua eta etengabea egiteko aukera ematen duelarik. Hiruhilekoaren amaieran haur bakoitzaren tutoreak egunerokoak irakurri eta txosten bat osatzen du gurasoei entregatzeko. Txosten horretan, ordea, guztia era positiboan idazten dute, hurrek jadanik egiten dutenean zentratuz, eta oraindik egiten ez duten horretan presionatu gabe. “No suspende, no evalúa, acepta partir del muchacho y estar hecha para él, pero es la escuela más seria y rigurosa que imaginarse pueda.” (Tonucci, 1974: 48-49).

Hori da, hain justu, eskola honek ezabatu nahi duena, betaurrekoak aldatu eta hezkuntzari beste begi batzuekin begiratzen saiatzen baita, eta neurri handi batean ebaluazioak ere laguntzen du horretan. Izan ere, Bustosek (2014) dioen bezala, egungo gizarteek nahi duten garapen sozial eta ekonomikoari kontrajarri arren, eskolek hiritar kompetente eta zoriontsuak heztea bilatu behar du, ongizate kolektiboa sortzen duten hiritarrak: “Me apunto a tener el alumnado de mejor rendimiento, pero más lo hago si es justo y sensible con lo que le rodea, en una escuela que articule experiencias y aprendizajes para lograrlo”. (Bustos, 2014).

Ebaluazioaren inguruan hauxe esan digute eskolako protagonistek:

Ebaluazioa	
1. Haurra	“Aprendo sin exámenes, sin suspensos, y me lo paso bien.”
2. Haurra	Nola dakizu asko ikasten duzuela? Zergatik orain bai eta lehen ez? “Ba ez dakit... Lehen beti zalantzan ibiltzen ginelako, ez genekien zer egin edo egiten genuena ondo zegoen... Orain zerbait egiten dudanean badakit ondo

	dagoela, edo gaizki, inork esan gabe.”
1. Irakaslea	“Hasiera-hasieratik erabaki zen umeen ebaluazioa nola egingo genuen: behaketaren bitartez egingo zela, ez zela kalifikatuko, ez genuela zer egiteko gai zen eta zer egiteko ez zen gai esango.... Azken batean tailerretan egiten duena biltzen dugu, zer galdetzen duen, nola egiten duen egiten duena... Horretarako, curriculum begiratu eta zein zehaztaperik dauden erreparatu genuen, ondoren zehaztaperik horiek zein tailerretan ematen ziren ikusi genuen, eta hala tailer bakoitzean zeri erreparatu diezaiokegun ere idatzita daukagu.”
2. Irakaslea	“Ebaluazioa... etengabe galdetzen digute ebaluazioaz eta guk geuk ere askotan hitz egin dugu horren inguruan. Ez zaigu ebaluatzea gustatzen, ez zaigu kalifikatzea gustatzen, eta gainera ez dugu ez ebaluatu eta ez kalifikatu nahi. Haurren prozesuetan sinesten dugu, haurrari denbora ematean, haurrak ahal duenean egingo duenaren ziurtasunez. Gaitasunak garatzeko bidea ematen duen eskola da gurea, haurrek gaitasunak eskuratu ditzaten nahi dugu, ez edukiak. Nola ebaluatzen da gaitasunen eskuraketa hori? Zein paperetan islatu dezakegu? Oso zaila da... Prozesu oso bat da, eguneroko gertaeretan ikusten da, eguneroko jarrerak, egiteko moduak, haurraren egoera, erlazionatzeko erak, gatazkak ebazteko erak... Horretan jartzen dugu guk arreta. Beraz, etengabeko behaketan oinarritzen gara. Haur bakoitzaren prozesua gertutik jarraitzen dugu, dituen arazoak jakitun gara, eta horiei irtenbidea emateko bidea aurkitzen ahalegintzen gara, noski, baina hori ebaluatzetik oso urrun geratzen da.”

4.Taula: elkarrizketatuek ebaluazioaz esandakoa.

Espazioaren antolaketa

*“Siempre he creído que hay lugares que son imanes
y te atraen si pasas por las inmediaciones.”*
(Modiano, 2008: 15).

Espazioa eragile hezitzaile esanguratsu bezala hartzearen ideiak XX. mendeko pedagogia aurrerakoietan du oinarria. Hala, pedagogia aktiboaren mugimendu ezberdinek ingurune sozial eta naturala lehen mailako tresna didaktiko gisa ulertzen dute. Tonuccik (2013) bere aldetik, dio, ikasgelek duela hogeitun urteko antolaketa berbera izaten jarraitzen dutela gaur egun ere. Harrigarria iruditzen zaio altzari eta instrumentu berberekin (eta orduak eta orduak eserita emanez) elkarrekiko zerikusirik ez duten gaiak lantzea.

Ildo horretatik, San Millan eskolak arreta izugarria jartzen dio eskolaren antolaketari: materialen kokapenei, apaingarriei, objektuen irisgarritasunari, eskolaren erakargarritasunari, erosotasunari, gertutasunari, praktikotasunari, edertasunari... (ikus

4. eranskina). Azken batean, Manzano, Muñoz eta Surrocak dioten bezala, “trabajar no sólo con el aprendiz, sino con todo su entorno de aprendizaje” (2014: 36). Horrekin guztiarekin haurrak erakartzea bilatzen da uneoro; euren arreta deitzea, lanerako giro egokia sortu dadin guztia prest izatea; giro goxoak sortzea; taldekatzeak eta mugimendua ahalbidetzea; haur bakoitzak egin nahi duena aukeratzen uztea...

Para posibilitar que fluya esta riqueza, es necesario un sentido y una organización de aula y de centro que los dote de espacio y de tiempo para poder compartirlo, y, en consecuencia, fortalecer los vínculos de convivencia y enriquecer el aprendizaje competencial. (Manzano, Muñoz eta Surroca, 2014: 35).

Beraz, betiko espazio zurrun eta aldaketarik gabekotik urrun, San Millan eskolan, etengabeko mugimendua dago, espazioa mugimendu horretarako ahalbidetuta dago, eta are gehiago, mugimendua sortu dadin laguntzen du. “Es un aula en la que se habla y en la que hay un constante movimiento”. (Equipo docente de tercer ciclo de la escuela andorrana de Encamp, 2015: 31).

Azkenik, espazioaren antolaketaren inguruko baieztapen hauek egin dizkigute irakasle eta ikasleek:

Espazioaren antolaketa	
1. Haurra	“Sí, la escuela es muy bonita, tiene muchos cuadros y muchos sitios guays.” “¿Cuál es un sitio guay, por ejemplo?” “El sillín del pasillo, me encanta leer ahí.”
2. Haurra	“Lehen bakoitzak bere gela zeukan.” Bere aulki eta mahaiekin. “Bai, egia... ez naiz gogoratu ere egiten. Orain leku gehiago dago. Lehen denak kaka pilan egoten ginen, orain lasai-lasai ibiltzen gara.”
1. Irakaslea	Espazioaren antolaketa nola egin zenuten? “Tailerrez tailer joan ginen: nola izan zitekeen tailer bakoitza, bakoitzean zein material jarriko genituen, nola kokatuko genituen, ordenagailuak, mahaiak, arraska... Hasieratik hona, asko aldatu da, noski... Lehenengo pixka bat irudikatu egin genuen, eta ondoren eman genion forma. Materialak berez egon bazeuden, birkokatzea izan zen gauza. Liburu guztiak liburutegian bildu genituen, gazte zein zaharragoenak... Probetak eta mikroskopioak eta ere bagenituen, eta zientzian sartu genituen... Gero bururatu zaigun neurrian gauza gehiago sartzen joan gara. Sukaldearena, adibidez, bigarren urtean sartu genuen. Hasieran ez genuen sukalderik planteatu, baina gero egunerokoan hitz egitean ideia ona iruditu zitzaigun. Etengabe horrela...”
2. Irakaslea	“Bai, antolaketak izugarritzko garrantzia du, noski, baina guk zorte handia dugu eskola ere bikaina baita berez. Gainerakoan, espazioa antolatzeko orduan, inguruneak, giroak, materialak, egoerak... errealak eta esanguratsuak izatea ahalbidetzen duten espazioak bilatu nahi izan ditugu.

	Haur bakoitzak bere interes, behar edo gustuen araberako proposamenak aurkitu ditzan. Umearen garapen mailaren araberako material eta egoerak eskuragarri jartzen ahalegintzen gara.”
--	---

5.Taula: *elkarrizketatuek espazioaren antolaketaz esandakoa.*

Laburbilduz, irakaslearen rola, mailaketarik eza, denbora eta edukiak ulertzeko modua, ebaluazioa eta espazioaren antolaketa dira San Millan eskolan aldaketa handiena jasan duten eta garrantzizko bilakatu diren alderdiak. Halako eredurik jarraitzen duen eskolarik ezagutzen ez dutenez, etengabeko balorazioaren eta autoebaluazioaren bidez aldaketak etengabekoak izan dira eskolan, uneoro hoberena bilatu nahian. Gaur egun, ordea, jadanik proiektuak sendotasuna hartu duela esan daiteke eta, aldaketak ematen diren arren ñabardurak baino ez direla baieztatzen dute irakasleek. Prozesua egina dago, orain horrekin lasaiago gozatzea eta bizitzea baino ez da geratzen.

4. Emaitzak eta ondorioak

Eskola honetan egunerokoan bizi eta ikusi dudana bilduta, hainbat ezaugarri dituela baieztatu dezaket:

Eskola berritzaile, oso, bizi eta garatua da. Etengabeko formazioaren bitartez, azken uneko berrikuntzak eskolara eramaten saiatzen dena, puntako eskola bat izan dadin borrokatuz.

Eskola publikoa da. Edonor irits dakiokela dakien eskola, inongo mugarik eta filtrorik jartzen ez duena eta ikasle eredu zabal bati irekita dagoena.

Eskola kritikoa da. Gauza bat edo bestea zergatik egin behar den uneoro pentsatzen duena, baieztapen unibertsal orori ere bi buelta ematen dizkiona.

Eskola utopikoa da. Utopia, ideala den hori azaltzeko erabili ohi da, ideala baina gauzatu ezin daitekeena; bada eskola honek utopia ere gauzagarri bihurtzen du, eguneroko irribarre, borroka, gogo eta lanarekin buruan duten hori lortuz.

Eskola irekia da. Eskolak ez baitu zentzurik kanpokoarekin lotzen ez bada, kanpokoari atea zabaltzen ez badizkio eta bertan etxeko, lasai eta seguru sentitzen ez bada.

Denbora ematen duen eskola da. Behatzen, umeari itxaroten eta umearengan konfiantza izaten erakusten duena.

Irakaslearen rolean sinesten duen eskola da. Etengabeko formazioan, etengabeko gogoarekin, etengabe helburu berriak jarritz, nekatu gabe eta indartsu umeen ondoan eta umeen alde diharduen irakasle baten irudia sortuz.

Eskola inklusiboa da. Benetan ikasle guztientzat dena, guztiak biltzen dituena, guztiei aukerak ematen dizkiena, umei banaka begietara begiratzen diena eta edozeren gainetik umeen ongizatea bilatzen duena, baina eskolaren zentzua galdu gabe.

Eskola da. Harreman horizontaletan oinarritzen den lekua, mugimendua dagoen lekua, lasai egon daitekeena, ikasi egiten dena, jolastu egiten dena, saiatu, lortu eta ez lortu. Bizi egiten den lekua da eta bizitza dagoena. Familia bat izan zitekeen, baina eskola da.

Bere ezaugarriak aztertu ostean atera dudan ondorioa argia da: abantailez betetako eskola bat ikusten dut nik Zizurkilen. Ondo doazen hurrei inongo mugarik gabe hobeto joan daitezen laguntzen diena, baina zailtasun gehiago dituztenei denbora emateko beldurrik ez duena.

Maila teorikoan eskola gehienetan defendatu ohi den hori, benetan praktikara daraman eskola dela uste dut. Edozein kasutan, aipatzekoa da, proiektu hau San Millan ikastetxerako soilik egin den proiektu bat dela, bertako testuingurua, protagonistak eta baldintzak kontuan hartuz. Hori dela eta, ezin daiteke beste eskola batean txertatu, aldaketarik gabe, eskola bakoitzak bere bidea egin behar baitu.

Tonucciren eskola transmititzaileari helduz, jakintza transmititzaileen eskola arrazionalista izango litzateke. Ikaslea sistemaren parte bat gehiago bihurtzen duen eskola. Aitzitik, Zizurkilgoa bezalako eskolek sistema aldarazi egiten dutela uste dut, hala ikaslea ez da prozesuko engranaje bat gehiago soilik, prozesuaren ardatza eta motorra baizik.

Azken hausnarketa batekin itxi nahiko nuke lana. Sarri entzun izan dut proiektu hau egitea posible izan dela eskola txikia delako eta ikasle gutxirekin soilik delako posible horrelako ekintzak aurrera eramatea. Ordea, horrelako proiektuak eskola handietan egiteko bidea bilatzeko hausnarketa egitera bultzatu nahiko nuke. Uste dut etorkizun batean proiektu hau eskola txikiak ez diren beste testuinguruetara egokitzeke azterketa egitea interesgarria izango litzatekeela.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Benedetti, M. (2002). *Inventario*. Madril: Visor.
- Bondioli, A. & Nigito, G. (coords). (2011). *Tiempos, espacios y grupos. El análisis y la evaluación de la organización en la escuela infantil: DAVOPSI*. Bartzelona: Graò.
- Bustos, A. (2014). Escuela-rendimiento. Escuela-vida. *Aula de Innovación educativa*, 232, 9.
- Domènech, J. (2014). *Elogio de la educación lenta*. Bartzelona: Graó.
- Educación y cultura AZ (2016). *Francesco Tonucci: "El alimento de la escuela debería ser la experiencia de los niños"*. 2017-03-20an hartuta, hemendik: <http://www.educacionyculturaaz.com/sin-categoria/francesco-tonucci-el-alimento-de-la-escuela-deberia-ser-la-experiencia-de-los-ninos>
- Edwards, C. & Gandini, L. Forman, G. (1993). *The Hundred Languages of Children*. Amerikako Estatu batuak: Greenwood.
- Equipo docente de tercer ciclo de la escuela andorrana de Encamp, (2015). El trabajo cooperativo en la metodología de proyectos. *Aula de Innovación educativa*, 247, 30-34.
- Filho, L. (1964). *Introducción al estudio de la escuela nueva*. Buenos Aires: editorial Kapelusz.
- Gonzalez, F. (2013). *En busca de respuestas: El liderazgo en tiempo de crisis*. Madril: Debate.
- Gonzalez, O. (2015). *365 Propuestas para educar*. Bartzelona: Amat
- Gray, P. (2015). Early Academic Training Produces Long-Term Harm. *Psychology Today*, 2017-03-28an hartuta, hemendik: <https://www.psychologytoday.com/blog/freedom-learn/201505/early-academic-training-produces-long-term-harm>
- Freire, H. (2017). Elkarrizketa: Heike Freire. *Hik Hasi aldizkaria*, 214, 19-26.
- Hoyuelos, A. (2007). *Los tiempos de la infancia*. 2017-03-29an hartuta, hemendik: http://ice2.uab.cat/jor_infantil_VIII/materials/conf2.pdf
- Laiz, E. (2016) *¿Cuántos años tienes? Y, eso... ¿Qué importa?*, 2017-04-03an hartuta, hemendik: <http://myslide.es/documents/cuantos-anos-tienes-y-eso-que-importa-elena-laiz-sasiain.html>
- Manzano, R. & Muñoz, I. & Surroca, J. (2014). ¿Dónde aprendemos hoy? *Aula de Innovación educativa*, 232, 32-36.
- Modiano, P. (2008). *En el café de la juventud perdida*. Bartzelona: Anagrama.
- Narvaez, E. (2006). Una mirada a la escuela nueva. *Educere*, 35, 629-636. 2016-11-17an hartuta, hemendik: <http://www.saber.ula.ve/bitstream/123456789/20126/2/articulo7.pdf>

- Palacios, J. (1984). *La cuestión escolar*. Bartzelona: editorial LAIA. 2016- 11-20an hartuta, hemendik: <http://www.institutojuanpablosegundo.com/recursos/secciones/archivos/primer/pedagogia/la-cuestion-escolar.pdf>
- Perera, S. (coord.), (2015). *Una mirada a nuestro entorno: la educación según Francesco Tonucci*. Kanaria Handia: Universidad de Las Palmas de Gran Canaria.
- Tonucci, F. (1974). *La escuela como investigación*. Bartzelona: Avance.
- Tonucci, F. (1990). *¿Enseñar o aprender? La escuela como investigación quince años después*. Bartzelona: Graó.
- Tonucci, F. (2003). *V Jornadas Universitarias sobre los derechos de las niñas y los niños: el respeto a su opinión*, Universidad de Vigo, 2016-11-20an hartuta, hemendik: http://webs.uvigo.es/consumoetico/textos/textos/entrevista_a_f_tonucci.doc
- Tonucci, F. (2013). *Tonucci: “El alimento de la escuela debería ser la experiencia de los niños”*. 2017-01-25an hartuta, hemendik: <http://blog.tiching.com/francesco-tonucci-el-alimento-de-la-escuela-deberia-ser-la-experiencia-de-los-ninos/>